



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Udal Kultur Etxea (Basauri)

Liburutegiko Laguntzaile lanposturako lan-poltsa bat sortzeko hauteke-ta-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak eta deialdia.

2023ko uztailaren 14an Basauriko Udal Kultur Etxearen Presidenteak Ebazpena onetsi du, erabakien atalean honako hau dioena:

Lehenengoa: Liburutegiko Laguntzaile lanposturako lan-poltsa bat eratzeko prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak eta deialdia onartzea.

Bigarrena: Xedapen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea.

Basaurin, 2023ko uztailaren 14an.—Basauriko Udal Kultur Etxearen Presidenteak, Asier Irigorri Basaguren

**LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILE LANPOSTUAREN LAN-POLTSAREN
DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK****Lehenengoa. — Deialdiaren xedea**

Deialdi honen xedea da liburutegiko laguntzaileen lan-poltsa eratzea Basauriko Udal Kultur Etxerako, lehiaketa bidezko sarrera libreko sistemaz. Eskatutako gutxieneko puntuazioa gaindituko duten hautagaiek osatuko dute lan-poltsa. Hautaketa-prozesua gainditzeko duten pertsonen zerrenda, eratu eta gehienez ere 5 urtera arte erabili ahal izango da.

A2 kategoria

Derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizuna.

Bigarrena. — Lanpostuaren eginkizunak

- Liburutegi-hedapeneko jarduerak eta haur eta gazteen eta helduen irakurzaletasuna sustatzeko jarduerak planifikatzea, koordinatzea, antolatzea eta gauzatzea, euskaraz eta gaztelaniaz, liburutegietako zuzendariaren ikuskaritzapean.
- Haur-liburutegirako dokumentu-funtsen erosketak hautatzea eta kudeatzea.
- Haur-liburutegiko dokumentu-funtsaren bilduma eta gainerako liburutegietako haur-atalak antolatzeko hainbat lan egitea.
- Irakurketa sarea koordinatzea.
- Haur-liburutegiko dokumentu-funtsak garbitzea, garbitutako funtsak aztertuz, eta funts horiek zertarako erabiliko diren erabakitzea.
- Jendeari harrera egitea euskaraz edo gaztelaniaz, informazioa emanez, orientatuz eta aholkatuz, mailegu-zerbitzua eskainiz eta erabiltzaileak liburutegiaren erabilerari buruz kontzientziatuz.
- Liburutegiko animazio- eta hedapen-jardueren eta haur-liburutegiaren urteko memoriak, proiektuak eta estatistikak egitea.
- Liburutegi-sareko zuzendaria ordezkatzea, agintzen zaizkion zereginetan ez dagoenean.
- Nagusiek agindutako zeregin guztiak egitea, beren eskumenen barruan.

Hirugarrena. — Hautagaien betekizunak

1. Lehiaketan onartua izateko eta, hala badagokio, parte hartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:
 - a) Europar Batasuneko estaturen bateko herritartasuna izatea, edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsita nazioarteko tratatuen arabera, langileen joan-etorri askeari aplikagarri zaion estaturen bateko herritartasuna izatea.
 - b) 16 urte beteta izatea eta erretiroa hartzeko adina ez izatea.
 - c) Lanpostuaren berezko eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten duen gaitasunik edo arazo psikiko edo fisikorik ez izatea.
 - d) Estatuko, autonomia-erkidegoko edo tokiko administrazioetatik diziplina-espediente bidez bereizita ez egotea, eta funtzio publikoak betetzeko ezgaituta ez egotea.
 - e) Graduak titulua edo baliokidea izatea. Atzerrian lortutako titulazioak dituzten hautagaiek dagokion baliozkotzea edo, hala badagokio, homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria aurkeztu beharko dute.
 - f) Indarrean dagoen araudiaren arabera, ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean sartuta ez egotea, horrek ematen dion aukera-eskubidea salbu utzita.
 - g) Administrazio-agiriak emateagatik tasa arautzen duen 10. ordenantza fiskalaren 6. artikuluko 17. kontzeptuan araututako azterketa-eskubideengatik tasa ordaindu izana (Basauriko Udalen eta haren erakunde autonomoen zerbitzura



dauden langileak hautatzeko prozesuetan azterketa-eskubideengatik ordaindu beharreko tasak. A2 taldeko tasaren zenbatekoa 18 eurokoa da, eta udalaren ordainketa-pasabidearen bidez ordaindu beharko da).

Langabezia dauden pertsonak tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira, eta lan-bizitzaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

Hautagaiek, onartuak izateko, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen bete beharko dituzte oinarri hauetan jasotako baldintza orokorrak, nahiz eta nahikoa izango den eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela adieraztea.

Laugarrena. — Eskabideak aurkeztea

Hautagaiek hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidea aurkeztu beharko dute, eta bertan adierazi beharko dute hirugarren oinarriko baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela, eskabideak aurkezteko ezarritako epea amaitzen den egunekoak, betiere.

Basauriko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, 10 egun balioduneko epean, deialdiaren iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean agertzen den egunaren biharramunetik zenbatzen hasita. Eskaera Internet bidez ere egin ahal izango da, Basauriko Udalaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen eskabidea beteta: <https://sede.basauri.eus>.

Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. eta 66. artikuluetan zehaztutako moduan aurkeztu ahal izango dira.

Kultur Etxearen web orrian (<https://kultur.basauri.eus>), hautaketa-prozesuari eta horren ondoriozko egintza guztiei buruzko informazioa emango da, jakinarazpen eta komunikazio ofizialak egiteko.

Bosgarrena. — Hautagaiak onartzea

Eskabideak aurkezteko epea amaitzean, Erakunde Autonomoko presidenteak ebazpena emango du, eta onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda onartutzat joko du. Ebazpen hori erakunde autonomoaren eta liburutegiaren web-orrietan argitaratuko da, eta bost egun balioduneko epea emango da baztertzearen aurka erreklamazioa aurkezteko eta hura eragin duten hutsegiteak edo agiriak zuzentzeko.

Eskabidea ezin izango da zuzendu epez kanpo, eta ezin izango da betekizunak eta merezimenduak egiaztatzeko agirik aurkeztu eskabideak aurkezteko epetik kanpo.

Erreklamazioak aurkezteko epea igarotzean, Erakunde Autonomoko presidenteak beste ebazpen bat emango du, onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda eta epaimahai kalifikatzailearen osaera onartzeko.

Aurrekoa gorabehera, epaimahaiak, ebazpen horren ondorengo edozein unetan, edozein hautagairen eskaera edo dokumentazioa okerra edo faltsua dela ikusten badu, eta hori prozesutik kanpo uzteko arrazoi bada, zuzendu ezinezkotzat joko da beti, eta Epaimahaiak Erakunde Autonomoko presidenteari proposatuko dio hautagaia baztertzeko.

Onartutako pertsonen behin-behineko zerrenda automatikoki behin betikotzat joko da, erreklamaziorik aurkezten ez bada. Erreklamaziorik balego, beste ebazpen baten bidez onetsi edo ezetsiko dira, bost eguneko epean. Behin betiko zerrenda Kultur Etxearen webgunean eta Liburutegiarenean argitaratuko da.

Seigarrena. — Kalifikazio Epaimahaia

1. Epaimahaiaren osaera Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81. artikuluan ezarritakoaren arabera izango da, eta presidente batek, idazkari batek eta hiru kidek osatuko dute. Kide guztiak hautagai guztiei jakinaraziko zaizkie onartuen ebazpenean.

2. Nolanahi ere, Kalifikazio Epaimahaiak aholkulariengana jo ahal izango du bere lanetan, espezialitate teknikoetan aritzera mugatuko direnak, Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legearen 81. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. Kalifikazio Epaimahaia osatzen duten pertsonak ezin izango dute esku hartu, eta Korporazioko presidenteari jakinarazi beharko diote, Sektore Publikoaren Araubide



Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen denean, eta hautagaiek errefusatu ahal izango dituzte, aipatutako legearen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurreko artikuluan aurreikusitako arrazoiren bat gertatzen denean.

4. Kalifikazio Epaimahaiko pertsona guztiek izango dute hitza eta botoa, eta haren erabakiak bertaratuen botoen gehiengoz hartuko dira.

5. Kalifikazio Epaimahaiko kide titularrez gain, ordezekoak ere egongo dira. Kalifikazio Epaimahaiko presidente, idazkari eta kide izateko izendatu beharko dira ordezeko horiek.

6. Kalifikazio Epaimahaia ezin izango da eratu, ezta jardun ere, kideen erdia baino gehiago, titularrak zein ordezekoak, bertaratu gabe.

7. Prozeduraren edozein unetan Kalifikazio Epaimahaiari jakinaraziko balitzaio hautagairen batek deialdian eskatutako baldintzak betetzen ez dituela, deialditik kanpo utziko da, interesdunari entzun ondoren, eta egun berean jakinaraziko zaio lehiaketarako deia egin duen agintariari. Aurki daitezkeen egitate-akatsak edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesdunak eskatuta.

Zazpigarrena. — Hautaketa-prozesua

Hautagaiak lehiaketa-sistemaren bidez hautatuko dira. Sistema horretan, eskabidea-rekin batera, behar bezala egiaztatutako merezimenduak baloratuko dira, gehienez ere 100 punturekin.

Aurkeztutako merezimenduak baloratuko ditu Epaimahaiak, baldin eta eskabideak aurkezteko epean alegatu eta egiaztatu badira. Egiaztagiria eskabidearekin batera aurkeztu beharko dira, eta ez da baloratuko egiaztagiria aurkezteko epea amaitu ondoren aurkeztu den beste edozein agiri.

Epaimahaiak dokumentazio osagarria aurkezteko eskatu ahal izango die hautagaiei, alegatutako merezimenduetatik zerbait argi geratzen ez bada.

Nolanahi ere, alegatzen diren merezimenduak zenbatzeko azken eguna deialdi hau argitaratzen den eguna izango da.

Baloratu beharreko merezimenduak

A) Lanbide-esperientzia: atal honetan 60 puntu emango dira gehienez.

— Deialdiaren xedearen antzeko eginkizunak eta lanbide-kategoria dituzten lanpostuetan Herri Administrazioan egindako zerbitzuak: 60 puntu, gehienez. Hilabeteari dagokion zatikiari 0,60 puntu emango zaizkio.

— Sektore pribatuan emandako zerbitzuak, deialdiaren xedearen antzeko eginkizunak dituzten lanpostuetan: 40 puntu, gehienez. Hilabeteari dagokion zatikiari 0,40 puntu emango zaizkio.

— Herri Administrazioan emandako zerbitzuak, liburutegiko laguntzaile lanpostuetan (C1 eta C2), gehienez 30 puntu. Hilabeteari dagokion zatikiari 0,30 puntu emango zaizkio.

— Sektore pribatuan emandako zerbitzuak, liburutegiko laguntzaile lanpostuetan, gehienez 15 puntu. Hilabeteari dagokion zatikiari 0,15 puntu emango zaizkio.

Administrazio edo erakunde publikoetan emandako zerbitzuak administrazio edo erakunde horien ziurtagirien bidez egiaztatuko dira. Zerbitzuen ziurtagirietan, urteetan adierazitako denbora hilabeteetan emango da, hamabi hilabete urteko, eta egunetan adierazitakoa, hilabeteetan, 30 egun hilabete. Lan egindako hilabete osoak baloratuko dira. Hilabetetik beherako zatiki soberakinak ez dira baloratuko.

Sektore pribatuan emandako zerbitzuak egiaztatzeko, zerbitzuak eman diren enpresaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, Gizarte Segurantzak emandako lan-bizitzarekin batera.



Aurretik aipatutako zerbitzu-ziurtagiriek kategoria, eta, hala badagokio, espezialitatea eta lan egindako aldiak jaso beharko dituzte. Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan eginikotzat hartuko dira.

- B) Titulazio akademikoak eta prestakuntza: atal honetan 40 puntu emango dira gehienez, honela banatuta:
- Jarraian aipatzen diren lanpostuaren berezko eginkizunekin lotutako titulu akademiko ofizialetako bat edukitzeagatik: Dokumentazioko lizentziatura, Informazio eta Dokumentazioko gradua, edo baliokideak, 20 puntu.
 - Ikastetxe ofizialetan (Herri Administrazioaren eskola edo institutuak, Herri Administrazioak, Unibertsitateak, Hezkuntza Ministerioaren mendeko ikastetxeak, Autonomia Erkidegoetako Hezkuntza Sailak, Lanbide Elkargoak, Mutualitateak, Fundazioak, Elkarteak eta Federazioak) bete beharreko lanpostuaren eginkizunekin zuzeneko lotura duten gaietan prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak gainditzeagatik, betiere bertaratze-ziurtagiria zentro horiek eman badute, eta ziurtagirietan nahitaez adierazita eskola-orduak (40 eskola-ordu edo gehiago ikastaro bakoitzeko), gehienez 18 puntu.
 - 40-80 orduko ikastaroak: 2,5 puntu.
 - 81-150 orduko ikastaroak: 4 puntu.
 - 151-300 orduko ikastaroak: 6 puntu.
 - 300 ordutik gorako ikastaroak: 12 puntu.

Hizkuntzak

Europar Batasuneko hizkuntza bat edo gehiago jakiteagatik, euskara alde batera utzita, gehienez 2 puntu emango dira, honela banatuta:

- 0,5 puntu, ziurtagiri ofizial bidez egiaztatutako B2 mailako hizkuntzak jakiteagatik, euskara alde batera utzita.
- 1 puntu, ziurtagiri ofizial bidez egiaztatutako C1 mailako hizkuntzak jakiteagatik, euskara alde batera utzita.
- 1,5 puntu, ziurtagiri ofizial bidez egiaztatutako C2 mailako hizkuntzak jakiteagatik.

Zortzigarrena. — Gainditu dutenen zerrenda. Dokumentazioa aurkeztea

Hautaketa-prozesuaren azken kalifikazioa lehiaketa-fasean lortutako puntuazio guztien baturak zehaztuko du, eta prozesua gainditu eta lan-poltsan sartzeko, gutxienez 40 puntu lortu beharko dira. Puntuazio-berdinketak ebatziko dira martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginean ezarritako irizpideen arabera. Berdinketarekin jarraituz gero, zozketa bidez ebatziko da.

Berdinketa ekitaldi publikoan egindako zozketa bakar baten bidez ebatziko da. Alfabetoko bi letra aterako dira ausaz, eta berdinketak lehen abizenaren ordena alfabetikoaren arabera ebatziko dira, lortutako bi letretatik abiatuta. Ondorio horietarako, «ZZ» letren atzetik «AA» letrak daudela ulertuko da. Ateratako hasierako bi letrekin hasten den lehen abizena duen hautagairik ez badago, hurrengo abizenera joko da alfabeto-ordenan, eta «ZZ» letren atzetik «AA» letrak daudela ulertuko da. Emaitzak Kultur Etxearen eta Liburutegiaren web orrian argitaratuko dira.

Hautaketa-prozesua amaitutakoan, Epaimahaiak emaitzak argitaratuko ditu, puntuazioaren arabera, eta zerrenda hori Erakunde Autonomoko presidenteari bidaliko dio, poltsa eratzeko berariazko proposamenarekin. Proposamen hori loteslea izango da, baina berrikusi egin ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitakoaren arabera.

Hautagaiek 10 egun balioduneko epea izango dute egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko, eta Epaimahaiak, hala badagokio, behin betiko zerrenda argitaratuko du proposatutako hautagaiekin, lan-poltsa osatzeko. Horretarako, 5 egun balioduneko epea izango dute honako agiri hauek aurkezteko:



1. Nortasun Agiri Nazionalaren edo agiri baliokidearen fotokopia.
2. Deialdian eskatzen diren baldintza espezifikoaren frogagiriak (titulazio akademiakoaren fotokopia konpultsatua).

Adierazitako epearen barruan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, lan-poltsan parte hartzeko proposatutako hautagaiek beren dokumentazioa aurkezten ez badute edo eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte, ezin izango dira lan-poltsan sartu eta beren jarduera guztiak baliogabetuta geratuko dira, eta erantzukizuna izan dezakete ere hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidea faltsutzeagatik.

Bederatzigarrena. — Aldi baterako lan-poltsa

Hautaketa-prozesu honen emaitzaren arabera, lan-poltsa sortuko da, 5 urteko hasierako iraupenarekin, eskatutako gutxieneko puntuazioa (40 puntu) lortu duten hautagaiez osatua, eta Basauriko Udalaren lan-poltsak arautzen dituen araudian xedatutakoaren arabera kudeatuko da.

Hamargarrena. — Datu pertsonalen babesa

Hautaketa-prozesuan bildutako edo sortutako datu pertsonalak datuak babesteari buruz indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera tratatuko dira.

Eskabideetan ematen den informazio guztia fitxategi batean sartuko da, eta fitxategi hori hautaketa-prozesua kudeatzeko eta aldi baterako langileak kontratatzeko eta izendatzeko sortzen den lan-poltsa kudeatzeko baino ez da erabiliko.

Deialdiko plazak lortu nahi dituzten pertsonak berariaz onartuko dute emandako datuen tratamendua, baldin eta datu horiek segurtasun-neurriak eska baditzaizkete eta hautaketa-prozesurako beharrezkoak badira.

Eskabidean agertzen diren helbidea, telefonoak eta posta elektronikoa baliozkotzat joko dira. Soil-soilik eskabidea egin duen pertsonaren erantzukizuna izango dira haren kontsignazioan egon daitezkeen akatsak, bai eta aldaketa oro auzitegiari jakinaraztea ere.

Balizko jakinarazpenen ondorioetarako, egoitza gisa hartuko da eskabidean adierazitakoa, salbu eta geroago beste bat espresuki eta modu frogagarrian jakinarazten bazaio deialdia egin duen agintaritzari.

Hamabigarrena. — Gorabeherak

Epaimahaiak ahalmena izango du sortzen diren zalantzak ebazteko eta oinarri haue-tan aurreikusten ez den guztian hautaketa-prozesua behar bezala antolatzeko behar diren erabakiak hartzeko.

Deialdi hau, haren oinarriak eta oinarrietatik eta epaimahaiaren jardunetik eratortzen diren administrazio-egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako epeetan eta moduan.

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Garraio Partzuergoa**

Iragarkia, Marco Antonio García Morán jauna karrerako funtzionario izendatzeari buruzkoa. Plangintza eta Proiektu Zerbitzuko goi-mailako ingeniari lanposturako, Administrazio Bereziko Eskalako Azpieskala Teknikoa.

Bizkaiko Garraio Partzuergoko Kontseilu Nagusiak, 2023ko otsailaren 17an egindako bilkuran, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko 2022ko Aparteko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartu zuen. Eskaintza horretan, besteak beste, Azterlan, Plangintza eta Proiektu Zerbitzuko goi-mailako ingeniari lanpostu bat hutsik zegoen (A1 taldea), Industria Ingeniaritza edo Telekomunikazio Ingeniaritza titulazioa duen Administrazio Bereziko Azpieskala Teknikoaren barruan, edo Informatikako Lizentzia edo Ingeniaritza edo Gradu Baliokidea, derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizuna), lehiaketa bidez. Plaza hori 2022ko martxoaren 16ko BAOn argitaratu zen, 52. zenbakian.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eudelek laguntza eman zuten Bizkaiko erakundeek Bizkaiko Foru Aldundiari hautaketa-prozesuaren kudeaketa materiala agindu diezaioten. Hala, Eudelek oinarriak prestatu zituen, aukera desberdinak eskaintzen dituztenak.

Aurrekoan oinarrituta, Kontseilu Nagusiak, 2022ko abenduaren 22an egindako bileran, deialdia arautzeko oinarriak onartu zituen. Hautaketa prozesua amaituta, Kalifikazio Epaimahaiak, 2023ko ekainaren 7ko batzarrean, lehiaketa eta oposizioa faseetara aurkeztu direnek lortutako puntuazioak gehitu dituzte. Ondorioz, Marco Antonio García Moran jaunaren aldeko izendapen-proposamena egin du aipatutako lanposturako. Aukeratuak izendapenerako beharrezkoa diren agiriak aurkeztu ditu.

Ondorioz, Batzorde Betearazleak, 2023ko uztailaren 12an egindako bileran, aho batez, ondorengo erabakia hartu du:

Marco Antonio García Moran karrerako funtzionario izendatzea. Lanpostua: Plangintza eta Proiektu Zerbitzuko goi-mailako ingeniari lanposturako, Administrazio Bereziko Eskalako Azpieskala Teknikoa.

Hori guztia argitara ematen da, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 62.1.b) artikulua, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 63.1.b) artikulua.

Bilbon, 2023ko uztailaren 17an.—Zuzendari Nagusia, Gorka Ugalde Martínez